



**2016KO AZAROAREN 18KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko azaroaren hemezortzian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratu-tako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkezten da 2016ko azaroaren 4an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2016ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 90 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA SEI MILA BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA HAMABI EURO ETA HOGEITA HAMAR ZENTIMO (26.932,30 €)tako onartzea erabakitzen da.

III.- TELEFONO BIDEZKO KOMUNIKAZIOAK KONTRATATZEKO GIPUZKOAKO EROSKETEN ZENTRALERA ATXEKIMENDUA.-

Gipuzkoako Erosketen Foru Zentralak jakinarazi du, telefono komunikazioen hornikuntza kontratatzeke kontratazio espedienteari hasiera ematera doala, esparru akordioaren prozedura bidez.

Honen aurrean eta kontuan izanda udal honetako Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralari atxikitzeke hitzarmena onartu zuela.

Kontuan izanda baita ere udal honek zerbitzu hau behar duela. _____

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, zera erabakitzen du:

- 1.- Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez telefono komunikazioen hornikuntza kontratatzeke hasi duen esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikipena ematea, 2011ko martxoaren 17ko Udal Osoko Bilkurak onartuta atxikitako hitzarmenaren ezarritako eran eta baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuaren ezarritako arauetan.
- 2.- Aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere enpresa esleipendunarekin kontratu eratorria izenpetzeke konpromisoa hartzea.



IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Kooperante gazteei beka.-

Jessica Cantero Pinto kooperante gazteak egindako gastuen justifikazioa ikusita, justifikazio hau onartzea diru laguntzaren beste erdia, hau da, 529,89 €ko ordainketa egin ahal izateko.

V.- LANDA LURREKO LAGUNTZAK.-

2016ko irailaren 25ean egindako basherri eguna dela eta, egun horretarako antolaketan izandako lankidetzarengatik, honako diru laguntza ematea onartzen da, aho batez:

Nori	Zergatik	Zenbat
Garikoitz Barandiaran	Bi asto ekartzea (lehendik bat ordaindu zitzaion)	50,00 €
Eusebio Garmendia	Pintxoak egiteko jakiak ekartzea	102,97 €
Xabier Sarriegi	Pintxoak egiteko jakiak ekartzea	62,00 €
Joxe Mari Garmendia	Pintxoak egiteko jakiak ekartzea	73,70 €
GUZTIRA		288,67 €

VI.- ETXEBIZITZA ETA EKONOMIA JARDUERAKO DIRU LAGUNTZAK .-

Lazkaoko Udalak eta Lazkaon merkatarien elkarteak elkarrekin antolatutako merkataritza sustapenerako kanpainaren barnean, opari gisa, udal kiroldagiko bazkietza bonoak zozketatu dira, 2016/2017 denboraldirako, eta zozketan sarituak ondorengoak izan dira bertan adierazten diren sariek:

Nor	Zer	Zenbatekoa
Jesus Blaquez Tiemblo	Urteko bazkietza, jubilatua	78,75 €
Pili Hernando Martin	Igerileku estaliko bonoa, gaztea	42,05 €
Koro Jauregi Turrientes	Urteko bazkietza kanpoko igerileku estaliaren zerbitzurik gabe	104,90 €
GUZTIRA		225,70 €

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, onartu egiten du sustapen kanpainaren barne egindako jarduera hau.

VII.- UDAL GOBERNANTZAKO DIRU LAGUNTZAK .-

Hitzartuta dago urtean biztanleko 2 euro ematea Goierriko komunikabideak diren Goierriko Hitza eta Goierri Telebistari.

2016ko uztailaren 1ean egindako Tokiko Gobernu Batzarraren bilkurak, 2016 urteari zegokionaren erdia onartzea erabaki zen eta orain beste erdia onartzeko proposa-



LAZKAOKO
UDALA

menaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, beste erdia onartzea erabakitzen du, honako xehetasunaren arabera:

- Goierriko Hitzari5.465,00 €
- Goierri Telebistari5.465,00 €

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak hamabi gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

